



# MIRANDE

film bat egiteko zirriborroa



## Aurkibidea Index

Sinopsia	Synopsis
Ekipa tekniko eta artistikoa	Equipe technique et casting
Fitxa teknikoa	Fiche technique
Zuzendariaren Oharrak	Note d'intention du réalisateur
Filmobiografia	Filmobiographie
Kontaktuak	Contact

Sinopsia / Synopsis

XX.mendearen erdialdean, euskara goi-literatura egiteko gai zela demostratu zuen Jon Mirande idazle paristarrak. Denek aitortzen diote bere garrantzia. Baina gai tabua da oraino. Hari buruz denetarik erran da. Arrazista zela. Pedofiloa. Nazia. Misoginoa. Ezmorala. Hari buruzko berri bakoitzak, kontrako iritziak harrotzen ditu. Ez dakigu zer egin harekin.

Jon Miranderi buruzko film bat egin nahi dut. Baina ez dakit nola. Agian, behingoz, hari eman behar zaio hitza.

Jon Mirande a prouvé par sa prose, au milieu du XXe siècle, que la langue basque était capable de produire de la littérature universelle culte.

Tout le monde reconnaît son importance. Mais c'est encore un sujet tabou. On dit de tout au sujet de Mirande. Qu'il était raciste. Pédophile. Nazi. Misogyne. Immoral. Chaque fois qu'on parle de lui, la polémique enfle. On ne sait pas quoi faire de lui.

Je veux faire un film sur Mirande. Mais je ne sais pas comment. Peut-être pourrait-on, pour une fois, lui donner la parole.

Zer jakin  
nahi dut?  
Zer galdotzen  
duzu esan



la  
in film  
t? ?  
sible da)

MIRANDERI  
A+HOTSA  
eman !!

**Ekipa Tekniko eta Artistikoa / Equipe Technique et Casting**

**Zuzendaria / Réalisateur**

Josu Martinez

**Gidoilariak / Scénaristes**

Josu Martinez, Miel A.Elustondo

**Jon Miranderen azalean / Dans le rôle de Jon Mirande**

Peio Berterretxe

**Ekoizpen eragileak / Producteurs délégués**

Ane Antoñanzas, Mireia Gabilondo, Josu Martinez, Katti Pochelu

**Irudia / Image**

Hibai Castro Egia

**Muntaia / Montage**

Amaia Merino Unzueta

**Musika / Musique**

Joserra Senperena

**Soinu diseinua / Sound Design**

Xanti Salvador

**Acteurs de « Gauaz parke batean » aktoreak**

Manex Fuchs, Maite Dunat

**Parte hartzaileak / Intervenants**

Filipe Oihanburu, Eneko Irigarai, Txomin Peillen,  
Joseba Sarrionandia, Itxaro Borda,  
Amaia Elizalde, Christian eta Alain Angele-Mirande



FITXA TEKNIKOA / FICHE TECHNIQUE

Titulua / Titre

Mirande, film bat egiteko zirriborroa  
Mirande, ébauches pour un film

Iraupena / Durée - 70min

Urtea / Année - 2023

Ekoizleak / Productions

Gastibeltza Filmak - Tentazioa

Festibalak / Festivals

2023ko Donostiako Zinemaldia - SSIFF

Hizkuntzak / Langues - Euskara, Français

# Zuzendariaren oharrak

## Note d'intention du réalisateur

Miranderekiko nire faszinazioaren jatorrian, bere literatura dago. Bere poemak. Bere prosa. Mirandek hunkitu egiten gaitu, plazer arraro bat eragiten digu. Bere hitzak begietatik sartu eta irudi bilakatzen zaizkigu buruan, ilun argiz beterik, iradokizunez blai. Bokazio zinematografiko bat balute bezala.

«Ez da normala orain arte inork Miranderen testuekin zinemarik egin ez izana», zioen Koldo Izagirre idazleak duela zenbait urte. Esaldia irakurri nuenean, arrazoi osoa zuela pentsatu nuen. Hala ere, Mirande, guztiz ezezaguna da oraindik gaur. Ezezaguna, baita euskaldun gehienentzat ere. Askori galdetuz gero eskolan ikasi zuten idazlearen izenari buruz, bere (ustezko) jarrera eta jokabide nardagarrien oroitzapena baino ez dute edukiko. Baina azaleko zikinkeria horren azpian, barnean, Jon Mirande magiko bat dago, harrigarria, norbaitek aukera bat emateko zain.

À l'origine de ma fascination pour Mirande se trouve sa littérature. Ses poèmes. Sa prose. Mirande vous touche, provoque un plaisir étrange. Ses mots entrent par les yeux et deviennent des images dans nos esprits, ils sont pleins de nuances et puissamment évocateurs. Comme s'ils avaient une vocation cinématographique.


« Ce n'est pas normal que personne n'ait encore fait de cinéma avec les textes de Mirande », écrivait l'auteur Koldo Izagirre il y a quelques années. À la lecture de cette phrase, je me suis dit qu'il avait entièrement raison. Pourtant, aujourd'hui encore, Mirande reste totalement méconnu. Méconnu même de la plupart des Basques. Quand on interroge les gens sur




Mirande nazia omen zen. Eta pedofiloa. Eta arrazista. Eta inmorala. Guzti horrek, egia izan ala ez, ostrazismora kondenatu du. Mirande euskal literaturaren historia pobrean argi propioarekin dirdira egiten duen uharte bat da, baina ez dakigu zer egin berarekin. Konpondu gabeko auzi bat da. Baina Rimbaud ere droga trafikoa ibili omen zen. Jean Genet prostituziotik eta lapurretak egitetik bizi. Louis Ferdinand Celine eta Ezra Pound eskuin muturreko bide ziren. Lewis Carrolek pedofilo fama zuen, eta Antonio Machado, 13 urteko Leonor Izquierdo neskatiaz

cet auteur étudié à l'école, ils ne se rappellent souvent que son attitude et son comportement (dit-on) embarrassants. Mais sous cette laideur de surface, à l'intérieur, se cache un Jon Mirande magique, étonnant, qui attend que quelqu'un lui offre une opportunité.

Il paraît que Mirande était nazi. Pédophile. Raciste. Immoral. Tout cela, que ce soit vrai ou faux, l'a condamné à l'ostracisme. Mirande est une île qui luit de sa propre lumière dans l'océan de l'histoire





maitemindu zen, bi urte geroago esposatzeko. Mirande ukatu eta gaitzesteak, autorearen eta haren obraren arteko dialektika unibertsalaren baitan kokatzen gaituzte bete-betean. Munduaz eta arteaz hitz egiteko beste manera bat da, Mirandez hitz egitea.

2023ko urtarrilean mende erdia bete zen Jon Mirandereren heriotza tragikotik. Inor ez zen joan Euskal Herritik ehorzketara. Euskal prentsan ere apenas izan zuen oihartzunik berriak. Urtetan, haren inguruko berri bakoitzak, mahainguru bakoitzak, edizio berri bakoitzak, kontrako iritziak harrotu ditu. Gai minbera izaten segitzen du. Baina 50 urte pasatu dira. Efemeride borobila

pauvre de la littérature basque, mais on ne sait pas quoi en faire. C'est une affaire non élucidée. Apparemment, Rimbaud fut trafiquant de drogue. Jean Genet vivait de la prostitution et de vols. Louis Ferdinand Céline et Ezra Pound étaient d'extrême droite. Lewis Carroll était réputé pour être pédophile, et Antonio Machado était tombé amoureux de Leonor Izquierdo, une fillette âgée de 13 ans, qu'il épousa deux ans plus tard. Renier et rejeter Mirande nous placent dans la dialectique universelle entre l'auteur et son œuvre. Parler de Mirande, c'est une autre manière de parler du monde et de l'art.



da. Urak egin du bide. Kontua ez da Jon Mirandekin bakeak egitea. Ezta, sikeran, Jon Mirande ulertzen saiatzea. Film honen bitartez nik nahi nukeena da Mirandekin gozaten ikastea, harekin ados egon beharrik gabe. Helburu handinahia, beharbada. Eta aldi berean, izugarri sinplea.



En janvier 2023, un demi-siècle est passé depuis la mort tragique de Jon Mirande. Personne ne fit le déplacement depuis le Pays Basque pour son enterrement. La nouvelle de sa mort fut à peine relayée par la presse basque. Pendant des années, chaque information à propos de Mirande, chaque table-ronde, chaque nouvelle édition, a ravivé les flammes contre l'auteur. Il reste encore aujourd'hui un sujet sensible. Mais 50 ans ont passé. C'est un beau compte rond. L'eau a coulé sous les ponts. Il ne s'agit pas de faire la paix avec Jon Mirande. Ni même d'essayer de comprendre Jon Mirande. Ce que je souhaiterais obtenir avec ce documentaire, c'est apprendre à apprécier Mirande, sans avoir besoin d'être d'accord avec lui. Il ne s'agit pas de tolérer certains comportements répréhensibles mais de les poser dans un film pour s'y confronter. C'est peut-être un objectif ambitieux ; il est pourtant terriblement simple.

# Josu Martinez (Bilbo, 1986)

Josu Martinez zinemaren figura garrantzitsu bat da, bereziki dokumentalean. BIZKARSOROk, zinemetan ateratako azken filmak eta aldi berean, bere lehen fikziozko film luzeak, arrakasta handia bildu zuen Euskal Herri osoan.

Ikusentzunezko Komunikazioan doktorea eta Antropologian lizentziatua, EHUko irakaslea da Josu Martinez. Horrez gain, zinema eta memoriaren gaien inguruan 4 liburu argitalatu ditu.

Josu MARTINEZ est une figure importante du cinéma basque, particulièrement dans le documentaire. Le dernier film sorti en salle, BIZKARSORO (qui était aussi son premier long-métrage de fiction), a rencontré un franc succès au Pays Basque.

Docteur en histoire du cinéma et licencié en anthropologie culturelle, il est professeur de cinéma à l'Université du Pays Basque (EHU). Il est aussi auteur de quatre livres autour du cinéma et de la mémoire.

## DOKUMENTALAK / DOCUMENTAIRES

Mirande. Film bat egiteko zirriborua (2023)

Paperezko hegoak (2021)

Caminho Longe (2020)

Jainkoak ez dit barkatzen (2018)

Gure Sor Lekuaren bila (2015)

Barrura begiratzeko leihoak (2012)

Debekatuta dago oroitzea (2010)

Sagarren denbora (2010)

Itsasoaren alaba (2009)

## FIKZIO LABURRAK / COURT-METRAGES DE FICTION

Alaba (2023)

Hitzak (2022)

Subandila (2021)

Anti (2019)

Ama (2018)

## FIKZIO LUZEA / LONG-METRAGE DE FICTION

Bizkarsoro (2023)

## KONTAKTUAK / CONTACT

### BANAKETA / DISTRIBUTION

Estitxu BARBACE

[estitxu@gastibeltza.eus](mailto:estitxu@gastibeltza.eus)

+33 7 70 02 96 56

### GASTIBELTZA FILMAK

Claude Shannon Terrazak,2

64210 BIDARTE

[info@gastibeltza.eus](mailto:info@gastibeltza.eus)

